

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1358/2008/EE ERABAKIA, 2008ko abenduaren 16koa. Erabaki horren bidez, "Europa herritarrekin" programa ezartzen da 2007-2013 aldirako, Europako herritartasun aktiboa sustatzeko xedez.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da :  
*«DECISIÓN No 1358/2008/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 16 de diciembre de 2008 que modifica la Decisión no 1904/2006/CE por la que se establece el programa «Europa con los ciudadanos» para el período 2007-2013 a fin de promover la ciudadanía europea activa. (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 350/58, 2008/12/30ekoa).*

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1358/2008/EE ERABAKIA, 2008ko abenduaren 16koa. Erabaki horren bidez, "Europa herritarrekin" programa ezartzen da 2007-2013 aldirako, Europako herritartasun aktiboa sustatzeko xedez.**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzekeo Tratatuaz aztertu dute, eta bereziki, haren 151 eta 308. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari kontsulta egin diote,

Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin diote,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedura bete dute <sup>(1)</sup>,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1904/2006/EE Erabakiak <sup>(2)</sup> "Europa herritarrekin" programa ezarri zuen 2007-2013 aldirako.

(2) 1904/2006/EE Erabakiko 8. artikuluko 3. paragrafoan ezartzen da programaren gauzatzeko 2. paragrafoan aipatzen ez diren neurriak Erabaki horretako 9. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako prozeduraren arabera onartuko direla; hau da, Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakian <sup>(3)</sup> ezarritako kontsulta-prozeduraren arabera. 1999/468/EE Erabakian, Batzordeari esleitutako betearazte-eskumenak nola bete behar diren ezartzen da.

(3) 1904/2006/EE Erabakiaren idazketa horrek, zehazki, zera dakar: 8. artikuluko 2. paragrafoan agertzen ez diren hautaketa-erabakiak Europako Parlamentuaren kontsulta-prozeduren eta kontrol-eskubideen mende daudela.

(4) Nolanahi ere, hautaketa-erabaki horiek diru-laguntza txikiei dagozkie eta ez dute eskatzen politikoki kontuz ibiltzekoak izan daitezkeen erabakiak hartzea.

(5) Prozedurazko betekizun horiek hautagaien diru-laguntzen esleipen-prozesua bizpahiru hilabete luzatzea dakarte. Hainbat atzerapen ekartzen dizkie onuradunei, neurritz kanpoko zama ezartzen dute programaren administrazioan eta ez dute balio erantsirik ematen, emandako diru-laguntzen ezaugarriak kontuan hartuta.

(6) Hautapen-erabakiak azkarrago eta eraginkorrago gauzatzeko, beharrezkoa da kontsulta-prozedura ordezkatzeko. Horren lekuan, Batzordeak komiterik bertan izan gabe 1904/2006/EE Erabakia betetzeko hartutako neurri guztiak atzerapenik gabe jakinarazi beharko dizkie Europako Parlamentuari eta estatu kideei.

ERABAKI DUTE:

*1. artikulua*

1904/2006 Erabakia aldatu, eta honela geratu da:

1) 8. artikuluan, 3. paragrafoa aldatu eta honela utzi da: «3. Batzordeak 9. artikuluan aipatutako Komiteari eta Europako Parlamentuari Erabaki hau betearazteko hartzen dituen gainerako erabakien berri emango die, erabakiak hartu eta bi laneguneko epean. Informazio horren barruan, hau adieraziko da: jasotako eskaeren deskribapena eta azterketa, ebaluazio- eta aukeraketa-prozeduraren deskribapena, eta haren finantzaziorako proposatutako proiektuen eta baztertutako proiektuen zerrendak.».

<sup>1</sup> 2008ko irailaren 2ko Europako Parlamentuaren Irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta 2008ko azaroaren 28ko Kontseiluaren Erabakia

<sup>2</sup> L 378 EO, 2006.12.27koa, 32. or.

<sup>3</sup> L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

2) 9. artikuluan, 3. paragrafoa kendu da.

*2. artikulua*

Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari erabaki honen berri emango die 2010eko ekainaren 25a baino lehen.

*3. artikulua*

Erabaki hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Estrasburgon emana, 2008ko abenduaren 16an.

*Europako Parlamentuaren izenean, H.-G. POTTERING presidentea*  
*Kontseiluaren izenean, B. LE MAIRE presidentea*